

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2559

*709/2025 EBAZPENA, maiatzaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez epaimahai kalifikatzailea izendatzen baita estatutupeko lotura finkoa lortzeko lehiaketa-sistemaren bidezko hautaketa-prozesurako, fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko mediku kategorian (familiako medikuntzako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 540/2025 Ebazpenaren bidez onartu ziren 2025. urtean betetzeko zailak diren lanpostuak betetzeko estatutupeko langile finko izateko lehiaketa-deialdiaren oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 541/2025 Ebazpenaren bidez onartu ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko lehiaketa-sistemaren bidezko hautaketa-prozesua arautzen zuten oinarri espezifikoak fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko mediku kategorian (familiako medikuntzako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 14. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian langileen gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek adierazita daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 540/2025 Ebazpenaren 17. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

## ERANSKINA

## KATEGORIA: FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO FEM - LMAT

## Epaimahaiburua:

- Titularra: Aurora Madrid Conde.
- Ordezkoa: Jose Manuel Marin Tamayo.

## Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Eriete Katixa Madina Elizondo.
- Ordezkoa: Jesús Conrado Marcos Bailon.

## Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Gorka Maiz López.
- Ordezkoa: María Begoña Maiz Alcorta.

## Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Jesús Fernando March Roca.
- Ordezkoa: Deiene Mandaluniz Elguezabal.

## Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Elena Magan Aparicio.
- Ordezkoa: Ricardo Mariñan Gorospe.

## Idazkaria:

- Titularra: Mikel Múgica Orellana.
- Ordezkoa: Juan Hernández Miranda.